



- DEABRUAREN ABOKATUA -

“Eta ni... ni konplikatua naiz”

Andoni Egaña | Bertsoaren haragiztatzea

Aisa ezagutuko duzue, kaletik ikusiz gero:
lau txapela daramatza buru gainean.

Aritz Galaraga

Argazkia: Dani Blanco

Plantea dezagun ukronia bat, Andoni: imajinatu 2009ko Bertso Txapelketako irabazle izan zarela.

Asko imajinatzea da hori... Imajinatu zortzi-garren egitea? Biak gerta daitezke. Ni, batera-ko prestatuta nago eta besterako ez dut prestatu beharrik.

Irabazten ez baduzu ere zu izango zara niretzat txapelduna, txapeldun morala behintzat. Esan dezagun txapeldunak sekulako morala daukala. Eta utz dezagun horretan.

Nik Sustrairen aldeko apustua egin dut, bueltan etor dakidakeenagatik, batez ere. Bazarete, gutxienez, bi. Orain lau urte, oker ez banaiz, telebistako Oker txakurrak egin zuen bere alde.

Dena den, lau txapela ere ondo dago, ezta? Nik 86ko finalean sartzean hartu nuen pozik handiena. Txapelekin baino handiagoa.

Bertsolaritza monarkia balitz, zu zinateke errege!
Faborez! Konparaketa ez da zilegi. Gure alaba, adibidez, azkarra eta langilea da.

Aizu, lau txapela dituzu, baina Retegiren antzera lortuak: ia finala soilik jokatu. Ez alajaina! Denetik probatu dut. 93an finalerdietan hasi nintzen txapeldun ez nintzela.

97an final-laurdenetan, txapeldun nintzela... Azkenengoetan bai, zuzenean sartu naute. Antolakuntzaren esanari ez diot inoiz erreparorik jarri. Eta ez dut bakarraren “aurka” jokutzen, zazpiren “kontra” baizik.

Erretiratzen zarenerako, hara Pedro Migel Etxeniketik dioena: “Andoni Egaña proposatzen dut kultur sailburutzarako”.

“Boterearen erotika” aipatzen da maiz. Boterea eta erotika. Nik, Iñaki Gurrutxagak txokolatiaz eta sexuaz zioena sinatzen dut. Bigarrena nahiago.

Zuk erretzeari uztea zen Etxenikeren baldintza. Zaila... Baina nahi nuke utzi. BECen erreko ez duen entzuleari barkamen eskea zor diogu oholtzan erreko dugunok.

Boterea ez, beraz. Beti geratuko zaigu *Goenkale*...

Puf! Ez dut aktoretzarako balio! Freskotasuna, naturaltasuna eta holako gauzak baloratzen dira aktore izateko, eta ni... ni konplikatua naiz.

Aitorpen bat: bertsozale eskasa nauzu, maitale mengela. Bertsokada ere sentitu izan dut inoiz. Larria al da, mediku jauna?

Ez. Eta neurri handi batean ulertzekoa da. BECera joan eta pasatzen ez bazaizu, herriko bertso-afari batera. **n**